

Mondragon Unibertsitateak diplomak eman zizkien doktore eta ingeneritzako ikasleei.

2011/05/12

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak 177 diploma eman zizkien 2009-2010 promozioiko ingeneritzako espezialitateko titulatuak eta hortaz aparte, beste zortzi doktore berriei. Ingeniaritzako espezialitateak hauek dira: Automatika eta industria elektronikako ingeniariak, Industria antolakuntzako ingeniariak, Informatikako ingeniariak, Industria ingeniariak eta Telekomunikazio sistemen ingeniariak.

Diploma ematea Arrasateko Amaia Antzokian egin zen, 18:00etan, Goi Eskola Politeknikoko zuzendariak, Vicente Atxak, inauguratutako ekitaldi akademikoan; amaierako hitzak Mondragon Unibertsitateko errektore losu Zabalak esan zituen.

Ekitaldi akademikoan hitzaldia egin zuen Ikerbasqueko zuzendari zientifiko eta irakasle ikertzaileak, Enrique Zuazua Iriondok.

Ikasketen araberako azterketa eginda, iazko promozioiko tituladun kopuru handiena Industria antolamenduko ingeniarietatik dator, 55 ikasle lortu dute beren diploma. Industria ingeniariak titulazioa da bigarren ikasketak jendetsuena ikasle kopuruari dagokionez, 50 ikasle baitira.

Titulazio horiek lortzeko, ikasle guztiek egin dute Ikasketak Amaierako Proiektua, urte bete ingurukoa, enpresaren batekin lankidetzan. Proiektu horietako batzuk atzerrian egin dituzte, batik bat Alemania, Erresuma Batua, Suedia, Belgika, Irlanda, Frantzia eta Txekiar Errepublikan.

Hurrengo bideoan, Lorea Lorenzok Mondragon Unibertsitateko zein oroitzapenarekin geratzen den kontatzen du.



Ikasleak bere diploma hartzen.